

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

### GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

#### 120/2025 prozedura laburtuan epatzeko iragarkia

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoa betez, jakinarazten da errekurtsua jarri dela eta espediente Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. zenbakiko Epaitegira bidali dela (120/2025 prozedura laburtua), ordaindutako eta hartu gabeko oporrei dagozkien zerbitzuak aitortzeko eskaera ezetsi izanaren aurka.

ALHAOn dagokion iragarkia argitaratuz, interesa duten guztiak epatzen dira, eta bederatzi eguneko epea izango dute autoetan agertu eta pertsonatzeko, iragarki hori argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 5a

*Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea*  
**ERNESTO SAINZ LANCHARES**